

Izenordaina



Bost minutuko
galdia

Erreparatu irudiari eta kopiatu berdez dauden hitzak koadernoan. Zer dira?

Eta, zer egingo duzue **zuek**?

Gu ikusleak izango gara!



Izenordainak izenaren ordezkoko hitzak dira:

Singularra	Plurala
ni	gu
hi/zu	zuek
hura	haiiek

Adibidez: **Kepak eta Olaitzek** barre egin dute. → **Haiek** barre egin dute.

Ni magoa izango naiz eta **zu**, nire laguntzailea!

2 Lotu esanahi bereko esaldiak eta azpimarratu izenordainak.

- | | |
|---------------------------------------|---|
| Josunek eta biok praka moreak ditugu. | ☐ ☐ Zuek oparia erosi duzue. |
| Harkaitzen lehengusua Bilbon bizi da. | ☐ ☐ Haiek berandu heldu dira. |
| Idoiak eta zuk oparia erosi duzue. | ☐ ☐ Hura Bilbon bizi da. |
| Umeak berandu heldu dira. | ☐ ☐ Guk praka moreak ditugu. |

3 Lotu.

- | | |
|-----------------------------|--|
| Ni ☐ | ☐ basoan galdu gara. |
| Zu ☐ | ☐ liburutegian egon ziren. |
| Hura ☐ | ☐ presaka etorri zara. |
| Gu ☐ | ☐ logura naiz. |
| Zuek ☐ | ☐ ibaian bainatu da. |
| Haiek ☐ | ☐ artistak zarete. |

4 Osatu izenordainak erabiliz.

- ... zure aldamenean eseri dira.
- Atzo ... Gasteizko katedralean egon zineten.
- Kaixo! ... Begoñaren ahizpa zara, ezta?
- ... musika-talde bateko abeslaria da.
- ... antzezleak izango gara.

5 Ordeztu azpimarra duten hitzak izenordainekin.

- Naiara eta biok zinemara goaz.
- Olatz eta Aitzol amarekin etorri dira.
- Aimar eta zu okerreko bidetik joan zarete.
- Pello dardarka atera da uretatik.
- Galder, zatoz hona!

6 Berridatzi, izenordainen ordeiz izenak jarriz.

- **Haiek** Getariako arrantzalerik gazteenak dira.
- **Gu** parke ondoko etxean bizi gara.
- **Zu**, irten zaitetz azkar hortik!
- Eta **hura**, non jaio zen?



Jolastu hizkuntzarekin!

7 Nolako nahastea! Berridatzi, izenordain bakoitza berari dagokion esaldian jarriz.

- Zuk ura bota dut pitxerrera.
- Guk ikuskizuna antolatu duzue.
- Nik magia atsegin duzu.
- Zuek hitz magikoak esan ditugu.



Trukoa aurkeztuko diegu ikaskideei.

- Ekarri eskolara trukoa egiteko behar duzuen materiala. Erabaki zer taldekidek (batek edo gehiagok) egingo duen aurkezpena.
- Aurkeztu trukoa beste taldeei.

